

# Sainduen debozio familiarra antroponimiaren bidez Nafarroan

(Family devotion to saints through anthroponymy in Navarre)

Jimeno Aranguren, Roldán  
Nafarroako Unib.  
Historia Saila  
Liburutegi eraikina  
31080 Iruñea

BIBLID [1136-6834 (1999), 28; 127-142]

---

*Historiografian zehar ibilaldia egin ondoren, Nafarroako toki-adbokazio garrantzitsuenak herriko antroponimoekin erlazionaturik ikusten dira, adibide gisa hauek auzertuz: Abarzuza (Irantzu), Altsasu (Erkuden eta Aitziber), Arguedas (M<sup>o</sup> del Yugo), Artaxoa (M<sup>o</sup> Jerusalén), Barasoain (M<sup>o</sup> de Egipto), Biana (M<sup>o</sup> Cuevas), Caparroso (M<sup>o</sup> del Soto), Labiano (Felicia), Milagro (M<sup>o</sup> Patrocínio), Miranda de Arga (M<sup>o</sup> del Castillo) eta Obanos (Felicia, Gilermo/a eta M<sup>o</sup> Arnotegi). Toponimo asko antroponimoetan bihurtzen dira. Sainduaren izena umeetan debozioa, promesa edo familiako norbaiten izenagatik batez ere ipiniko da. Historian zehar, XIX. mendearen bukaera arte tokiko saindu gutxi izango dira antroponimoetan. Hortik aurrera gorakada handia izango da, kasu askotan Frankismoaren giro erlijiosoak bakarrik gainezkatuz. Hirurogeigarren hamarkadatik aurrera jeltsiera bortitza ikusiko da, euskal saindutegien izenetan ezik.*

*Giltz-Hitzak: Familia. Hagio-antroponimia. Ama Birjina. Saindua. Saindutegia. Bataio izena. Erliziozkotasuna. Nafarroa.*

*Tras efectuar un recorrido por la historiografía, las principales advocaciones de lugar han sido relacionadas con los antropónimos locales, como por ejemplo: Abárzuza (Irantzu), Altsasu (Erkuden y Aitziber), Arguedas (M<sup>o</sup> del Yugo), Artajona (M<sup>o</sup> Jerusalén), Barásoain (M<sup>o</sup> de Egipto), Viana (M<sup>o</sup> Cuevas), Caparroso (M<sup>o</sup> del Soto), Labiano (Felicia), Milagro (M<sup>o</sup> Patrocínio), Miranda de Arga (M<sup>o</sup> del Castillo) y Obanos (Felicia, Gilermo/a y M<sup>o</sup> Arnotegi). Muchos topónimos se han convertido en antropónimos. La devoción, una promesa o tener alguien en la familia de ese nombre serán las razones principales para poner el nombre del santo a un niño. A través de la historia, hasta finales del siglo XIX, han existido pocos hagioantropónimos. A partir de entonces se producirá un gran aumento de los mismos que, en muchos casos, sólo se verá superado por el ambiente religioso del franquismo. A partir del decenio de los sesenta se producirá un fuerte descenso de los mismos, salvo en los nombres de santuarios vascos.*

*Palabras Clave: Familia. Hagio-antroponimia. Virgen María. Santo. Santuario. Nombre de pila. Religiosidad. Navarra.*

*Après avoir effectué un parcours à travers l'historiographie, les principales références religieuses de lieux ont été reliés aux anthroponymes locaux, comme par exemple: Abarzuza (Irantzu), Altsasu (Erkuden y Aitziber), Arguedas (M<sup>o</sup> del Yugo), Artaxoa (M<sup>o</sup> Jerusalén), Barasoain (M<sup>o</sup> de Egipto), Biana (M<sup>o</sup> Cuevas), Caparroso (M<sup>o</sup> del Soto), Labiano (Felicia), Milagro (M<sup>o</sup> Patrocínio), Miranda de Arga (M<sup>o</sup> del Castillo) et Obanos (Felicia, Gilermo/a et M<sup>o</sup> Arnotegi). Beaucoup de ces toponymes se sont transformés en anthroponymes. La dévotion, une promesse, ou bien le fait d'avoir quelqu'un dans la famille portant ce nom sont les raisons principales qui poussent à donner le nom du Saint à un enfant. A travers l'histoire, jusqu'à la fin du XIX<sup>ème</sup> siècle, on trouve peu de saints locaux parmi les anthroponymes. A partir de ce moment-là ils connaîtront une augmentation spectaculaire qui, dans de nombreux cas, ne sera dépassée que par l'ambiance religieuse du franquisme. A partir des années soixante-dix on note une importante diminution de ces anthroponymes, sauf en ce qui concerne les noms des sanctuaires basques.*

*Mots Clés: Famille. Hagio-anthroponymie. Vierge Marie. Saint. Sanctuaire. Prénom. Religiosité. Navarre.*

## ANTROPONIMIA HISTORIOGRAFIATZAT HARTURIK<sup>1</sup>

Belaunaldiz-belaunaldi pertsona batean mantentzen den familiar ezaugarri nabarmena bere abizena da, bigarren maila batean izena agertuz. Antroponimia da onomastikaren arlo hauek ikertzen duen diziplina, bere inguruan filologo, historiagile eta antropologoek batez ere lan egiten dutelarik.

Historiaren zientzia laguntzaileen artean, onomastika da Euskal Herrian azken urteetan garrantzi handienetarikoa bat izan duena. Bertan, antroponimiako ikerketek familiaren gaiarekin zerikusi handia dute. Onomastikaren<sup>2</sup> arloan sartzen den zientzia hau pertsonen izenak edo antroponimoak (izenak<sup>3</sup>, abizenak<sup>4</sup> edo ezizenak<sup>5</sup>) ikertzen ditu. Historiaren garai eta kultura guztietan antroponimoak iradokitzen dute mezu bat. Azken hamarkadetan antroponimoaren zentzua kasu askotan galdu egin da, eufonikoki ondo gelditzea bilatzen delarik batez ere; horrela bada, gaur egun inork ez lioke bere alabari Poio edo Barda ipiniko.

Aro garaikidera ailegatu arte, pertsona izenak familia eta herri batean errepikatzen ziren adaketa bortitzik izan gabe urte askotan zehar. Erdi aroan klasikoen eta herri germaniarren

---

1. Ana Zabalza, Irantzu Solana eta Gema Insaustiren oharrak eskertzen ditut.

2. Onomastikaren alorrean asko ikertzen ari da, adibidez *Société Française d'Onomastique*ko oso artikulua interesgarriekin *Nouvelle Revue d'Onomastique* argitaratzen dute. Euskal Herrian bere *Onomastika Batzordearekin Euskaltzaindia* da gai honetaz arduratzen dena batipat. Unibertsitateen inguruan eta bestelako ikertzaileak ere gai hauek lantzen dituzte.

3. Izenei buruz bibliografia mordoak aurkitu dezakegu mundu osoan zehar, interes handien artean hauek daude: R. SERTOLI-SALIS, *Dizionario dei nomi propri di persona*, Milano, 1951. Emidio DE FELICE, *Nomi d'Italia: Origine, etimologia, storia, diffusione e frequenza di circa 18 mila nomi*, Milano, 1978 (3 ale); eta hobeagoa dena oso ikerketa lan mamitsuarekin Carlo TAGLIAVINI, *Origine e storia dei nomi di persona*, Bologna, 1978 (2 ale); Ronan COGHLAN, *Irish Christian Names*, London, 1979; Leslie Alan DUNKLING, *The Guinness Book of Names*, London, 1974; E.G. WITHY-COMBE, *The Oxford Dictionary of English Christian Names*, Oxford, 1977 (7. ediz.); Hilary SPENCE, *The Modern Book of Babies Names*, London, 1975; Ola STEMSHAUG, *Norsk Personnamn Leksikon*, Oslo, 1982; Paul LEBEL, *Les noms de personnes*, Paris, 1974; Albert DAUZAT, *Les noms de personnes. Origines et évolution*, Paris, 1950 (7. ediz.); Eugène VROONEN, *Les noms des personnes dans le monde*, Bruselas, 1967. Estatu mailan José M<sup>a</sup> ALBAIGES OLIVARTen lana goraiatu beharra dago: *Diccionario de nombres de personas*, Barcelona, 1989 (2. ediz.). Bestelako lan interesgarrien artean hauek aipatu ditzakegu: Juan ÁLVAREZ DELGADO, *Antroponimos indígenas canarios*, Las Palmas de Gran Canaria, 1979; Antonio L. CUBILLO FERREIRA, *Antroponimos guanches y bereberes. Antroponimos guanches et bereberes*, Santa Cruz de Tenerife, 1985; José I. LÓPEZ SUSIN eta laguntzaileak, *Antroponimos aragoneses. Nombres aragoneses de persona*, Zaragoza, 1989; Xaime SEIXAS SUBIRÁ, *400 nomes galegos*, Vigo, 1977. Euskal Herriarako eta lan orokorrak bezala hauek dira aipagarrienak: Luis MICHELENA eta Ángel IRIGARAY, "Nombres vascos de persona", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, XI (1955), 495-506 orr.; V. J. LOS ARCOS AYAPE, *Gaurko Nafarroan izenak*, Caracas, 1978; José María SATRÚSTEGUI, *Euskal izendegia. Nomenclátor onomástico vasco. Liste des prénoms basques*, Bilbo, 1983 (3. ediz.), orain berregiten ari dena: ID. "Aportación al estudio de la Onomástica tradicional vasca", *Euskera*, VI (1961), 209-229 orr. Alfonso IRIGOYEN, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat)*, Bilbo, 1994.

4. Abizenen ikerketak izen propioenak baino ugariagoak dira oraindik, lan on eta berri bat adibide gisa Patrick HANKS eta laguntzaileena aipatu dezakegu: *A dictionary of surnames*, Oxford, 1996, edo zaharragoa dena baina oraindik baliozgarria P.H. REANEYko *A Dictionary of British Surnames*, London, 1970. Euskal Herriarako lan aipagarrienak hauek ditugu: Sabino de ARANA GOIRI, *Tratado etimológico de los apellidos euskéricos*, Bilbao, 1930 (2. ediz.); Fray Ignacio de OMAECHEVARRIA, "Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos", *Homenaje a D. Julio de Urquijo*, II, *Número extraordinario del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, (1949), 153-175 orr.; Albert DAUZAT, *Les noms de famille de France*, Paris, 1949 (2. ediz.), 245-249 orr.; eta batez ere Luis MICHELENA, *Apellidos vascos*, San Sebastián, 1989 (4. ediz.); eta Mikel BELASKO, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra. Apellidos navarros*, Pamplona, 1996.

5. Ikusi euskal ezizenetarako Ángel IRIGARAY eta laguntzaileak, *Nomenclátor euskérico de nombres de pila*, Bilbao, 1966.

izen exotiko gehienak baztertzen dira<sup>6</sup>. Euskal Herrian bi eratako izenak aurkituko ditugu batez ere: sainduenak (Martin -Mattin<sup>7</sup>-, Juan -Jon, Joanes, Manex-, Migel -Mikel, Mitxel- edo Pedro -Kepa, Pello, Peru, Petri-, besteak beste) eta bestelako bertako izenak: Santxo (Antxo), Lope, Fortun, Aznar, Garzia, Eneko, Semeno. Emakumezkoen artean, Mariaz gain, Oria, Toda edo Santxa, besteak beste, izango dira amankomunenak.

Trentoko kontzilioaren ondoren sainduen izenak izango dira protagonistak, batipat Juan, Pedro, Miguel, Antonio (Andoni), Gregorio (Goio, Gorgorio), Sebastian (Sastin, Saustin), Martin, Francisco (Fraisku, Patxi), Bernardo (Beñat), Diego, Jose (Joseba) gizonezkoetan emanez. Gizonezkoen izenak emakumezkoetan bihurtutakoak alde batetik, eta Graciana-Graciosa, Magdalena eta Katalina bestetik izanen dira emakumezkoen izen arruntzenak. Euskal saildutegia antroponimiarekin erlazionatuz Altube<sup>8</sup>, Ormaechea<sup>9</sup>, Azkue<sup>10</sup>, Satrustegi<sup>11</sup> eta Irigoyen<sup>12</sup> ikertu dute batipat.

Azken urteotan historiagileek antroponimiaren<sup>13</sup> ikasketak beraien lanetan ugari landu dituzte. Aintzin aroan epigrafiatik ateratako onomastika lanak ezinbestekoak suertatzen dira garai hau ezagutzeko<sup>14</sup>; ertarorako antroponimia ikerketatik oso ondorio interesgarriak atera daitezke<sup>15</sup>; eta moderno aroan giza-historiak azken urteotan antroponimia gaiak lantzen hasi ditu<sup>16</sup>.

---

6. Ikusi adibidez oso lan interesgarria den Enric BAGUÉ Y GARRIGA, *Noms personals de l'Edat Mitjana*, Palma de Mallorca, 1975.

7. Euskal formak erdi eta moderno aroetan ez daude dokumentaturik, kasu gehienetan.

8. Severo ALTUBE, *Notas sobre el Santoral Vasco o "Deun Ixendegi Euxkotarra" de Arana Goiri'tar Sabin*, "Euskera", XIV (1933), 153-196 orr.

9. Nicolás ORMAECHEA, *Mi Santoral Vasco*, "Euskera", XIV (1933), 288-298 orr.

10. Resurrección María de AZKUE, *Acerca del Santoral Vasco*, "Euskera", XIV (1933), 60-100 orr. *Acerca del Santoral Vasco. Advertencias a las "Notas sobre el Santoral Vasco" publicadas en nuestra Revista, año XIV, nº II por nuestro caro y activo compañero Altube*, "Euskera" XVI (1935), 121-133 orr.

11. J.M. SATRÚSTEGUI, *Euskal izendegia*, op. cit.

12. A. IRIGOYEN, *Pertsona-izenak*, op. cit.

13. Lan orokor eta interesgarri bat Enrique MOREU-REY Catalunyan egindakoa da: *Antroponimia: història dels nos - tres prenom, cognoms y renoms*, Barcelona, 1991.

14. Epigrafiaraz baliatuz ehundaka ikerketa daude aintzin aroko antroponimiari buruzkoak; Nafarroari dagokionez Carmen CASTILLO eta laguntzaileen lana aipagarria da: *Inscripciones romanas del Museo de Navarra*, Pamplona, 1981. 2000. urtean argitaratuko da Marc MAYER irakasleak koordinaturiko *Conventus iuridici Caesaraugustanuseko Corpus Inscriptionum Latinarumeko* alea, Narraroako epigrafia guztia bilduz.

15. Lan interesgarri eta erudugarri bat Pascual MARTÍNEZ SOPENARENA da: *Antroponimia y sociedad: sistemas de identificación hispano-cristianos en los siglos IX a XIII*, Valladolid, 1995. Euskal erdi aroko antroponimiari buruzko ikerketa sistematiko bat oraindik egitear egon arren, lan hau pixkanaka-pixkanaka, geroz eta hurbilagoa suertatzen ari da Eusko Ikaskuntzako *Euskal Herriko Erdi Aroko Dokumentu Iturriak* izeneko bilduman argitaratu diren fondo dokumentalei esker. Nafarroan bereziki, dokumentu sorta argitaratuak oso baliozgarriak dira. Ikerketa sistematizatu baten saiakera bat Ángel IRIGARAYK egin zuen: "Antropónimos medievales de Navarra", *Príncipe de Viana*, 16 (1955), 495-506 orr.; eta IBID., "Onomástica medieval de Navarra", *Príncipe de Viana*, 21 (1960), 131-135 orr.

16. Ikusi besteak beste Scott SMITH-BANNISTER, *Names and naming patterns in England. 1438-1700*, Oxford, 1997. Jacques DUPÂQUIER, "Naming-practices, godparenthood, and kinship in the Vexin, 1540-1900", *Journal of Family History* (1981), 135-155. orr. Claude LARQUIÉ, "Mentalités et comportements à l'époque moderne: le prénom des enfants madrilènes aux XVIIe et XVIIIe siècles", M. Lambert Gorges (edit.), *Les élites locales et l'Etat dans l'Espagne Moderne du XVI au XIX siècle*, Paris, 1993, p. 125-147. Gaur egun, Nafarroan, aro modernoko antroponimiarako oso lan interesgarria egiten ari da Antonio Moreno Almarcegi zuzendutako lan taldea, bertan Agustín González Enciso, Javier Escrivá Ivars, Rafael Torres Sánchez, Ana Zabalza Seguin eta César Ruiz Gómez lan egiten ari direlarik: *Nombrar heredero. La práctica sucesoria en Navarra. Evolución comparada entre el sistema de heredero único y la igualdad entre hermanos (siglos XVI-XIX)*. Lanaren lehen epea Nafarroako aurre-Pirineoaren ustiaketa 1550-1725 urteen artean egiten

Toki bakoitzeko sailduaren izena paratzea batez ere fenomeno garaikidea da, oso kasu gutxitan, baina oso adierazgarriak direnak, aro modernoan sartzen garelarik. Hala ere antroponimia garaikideari buruz gutxi ikertu da, euskal izenetan oso ikuspegi murriztu bati mugatuz; beraz, lan historiko-antropologiko-sozialen falta somatzen da. 1977. urtetik aurrera jaioberrietan euskarazko izenak ipintzearen askatasun ofiziala dago, legeak bataioan ezarritako gaztelaniako izena paratzearen derrigortasuna desagertuz. 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera gurasoek jaioberrientzat komenigarri uste duten izena ipintzeko askatasuna izango da helburu orokorra. Horrela, *Euskal Izendegian* esaten den bezala, zabaltasun handiko ahalbidak eskaini zitzaizkien euskal izenak jarri nahi zituzten gurasoei, gure mitologia, historia, literaturako pertsonaiak, nahiz toponimoak beste hainbeste abiapuntu eta izen-iturritzat hartuz gero<sup>17</sup>. Gaur egun Euskaltzaindiaren agiri bat beharrezkoa da euskal izen batzuk ipintzeko.

Interesgarria izango litzateke parrokia-liburu eta gaur egungo udal erregistro zibilen hustuketak egitea, eta, agerturiko izenak informatizatuz, datu base bat egin, horrela ondorio aunitz atera ahal izanez. Mormoiek dira munduan zehar gai hau jorratuenik dutenek, baina helburu erlijioso-espiritualekin landuz soilik.

## SAINDUEN IZENAK NAFARROAKO UMEETAN

Nafarroako umeen izenetan toki hauetako adibideak ditugu nabarmenenak:

Abarzuza (Irantzu), Aguilar (Codés), Aiegi (Iratxe, Veremundo), Altsasu (Erkuden, Aitziber), Andosilla (Cerca), Arguedas (Yugo), Artaxoa (Jerusalén, Saturnino), Atondo (Oskia), Barasoain (Egipto), Bargota (Poio), Biana (Cuevas), Caparroso (Soto), Cárcar (Gracia), Cascante (Romero), Cintruénigo (Paz), Fitero (Barda), Iruñeko Done Saturdi (Camino), Isaba (Idoia, Arrako), Labiano (Felicia), Lizarra (Puy), Marcilla (Plu), Mendigorria (Andión), Mendavia (Legarda), Milagro (Patrocinio), Miranda de Arga (Castillo), Muruzabal (Eunate), Obanos (Felicia, Arnotegi, Guillermo), Orreaga (Orreaga/Roncesvalles), Otsagabia (Muskilda), San Martín de Unx (Cita), Tafalla eta Uxue (Ujué/Uxue edo Uxua), Urdiain (Aitziber), Zangotza (Rocamador, Nora), Zarrakastelu (Oliva). Lan honetan adibide batzuk besterik ez ditugu ikertuko.

Izen hauek bi multzoetan banatu ditzakegu: Ama Birginaren saildutegiaren toponimoak antroponimoetan bihurtu direnak (Irantzu, Codés, Iratxe, Eunate edo Uxua, adibidez), eta sailduaren berezko izena (Egipto, Patrocinio, Felicia edo Guillermo, besteak beste).

Bataiatuaren izena sailduari zaion debozioagatik paratzen zaio askotan. Hau garbi ikusten da herritik atera behar izan diren familietan. Nahiz eta beste leku batean bizi, bakoitzeko sorterriko sailduaren izena bere seme-alabei ipintzea normaltzat jo dezakegu. Adibidez, Barasoain 1922 eta 1934. urteetan *Jerusalén* bana aurkitzen ditugu, bi kasuetan aita Artaxoarra izanez eta ama Barasoaindarra; ez bata ez bestea ez dira Jerusalengo Amaren festaren inguruan jaiok<sup>18</sup>. Caparrosen antzeko kasua ematen da 1950. urtean, aita Caparrosokoa eta

---

ari da. 1999. urterako argitaratzea espero da. Bertan gizartearen erreproduzioaren sistema ikertzen da. Horretarako notarial protokoloak iturri bezala erabiltzen ari dira. Guzti horren atzean antroponimiako jasotze lan ikaragarria dago eta sailduen izenen ikerketarako oso baliagarria izango da. Ikuspegi orokor baina biribil batetik ikusi Ana ZABALZA SEGUIN, "Con nombre y apellido. Casa e identidad en la Navarra del Antiguo Régimen", *Ponencias del IV Congreso de Historia de Navarra: Mito y realidad en la historia de Navarra*, 3, Pamplona, 1998, 135-154 orr.

17. J.M. SATRÚSTEGUI, *Euskal izendegia*, op. cit., 5-7 orr.

18. *Libro de Bautizados. Parroquia de Barásain*, 7 zb., fol. 191 itzulia eta 240 itz.

ama Artaxoarra izanez, azkeneko hau gainera Jerusalén deiturikoa ere<sup>19</sup>. Beste kasu batean adibidez, Milagron bizi diren Corellatar guraso batzuk 1932. urtean jaiotako alabari *María Patrocinio Villar* jarri zioten: *Patrocinio* Milagroko Ama Birjinagatik eta *Villar* Corellakoagatik<sup>20</sup>.

Izena paratzearen bestelako arrazoia dokumentalki jakitea zaila da, sainduari eskatutako fabore baten mesedeagatik ipinitakoak adibidez. Kasu hau gure tokian tokiko lanaren arabera Erriberako Milagron aurkitu dugu: herri honetako emakume batek bi seme zituen eta Patrocinioko Amari bere hurrengoa neska jaiotzekotan haren izena jarriko ziola eskeini zion; adei hori lortuz, alaba berriari *Susana Patrocinio* (1974-III-31) ipini zion. Antzeko zerbait susmatu daiteke *Eduardo Patrocinio Garijo Lebreroren* kasuan (1921-XI-13), gizonezkoa izanez emakumezko izen bat eramatea arraro xamarra suertatzen baita garai honetan.

Baita amabitxi edota bestelako familiako batek duen izena jartzea normala izango da. Puntu honetan bakarrik Milagro eta Labianoko kasuak ikusi ditugu. Erljio bizitzan sartutakoak ere askotan bere tokiko sainduaren izenak hartzen zituzten, adibidez Labianoko *Felicia* izeneko serora.

Hauetako saindutegien debozio hedapena kasu askotan askoz handiagoa da: ibar bat, Nafarroa, Euskal Herria; muga politikoak desagertuz (Codés Araba eta Nafarroan, Orreaga bi Nafarroetan, eta abar).

Kronolojikoki, aro modernoan eta XIX. mendearen bukaera arte tokiko saindu gutxi izango dira antroponimoetan. Gertakari hau batez ere 1870. urtetik aurrera emanen da. Urte horretan Estatu Pontifizioak Italiara batu ziren, antiliberalismo apeztiarra erradikalizatuz. Hurrengo hamarkadatik aurrera Nafarroan konzentrazio handiak izango dira: mende bukaerako erromeriak (Orreaga, Arellanoko San Veremundo, Tafalla, Mikel Gurea, Cascanteko Romero), Gurutzearen garaipenaren urteurrena (1903), Sorkunde Garbiaren dogmaren berrogeita hamargarren urteurrena (1904) eta Mariako agerkundearen urteurrenak (Puy: Lizarra, 1885; Uxue: 1886; Camino: Iruñeako Done Saturdi, 1887; Artaxoa, 1899)<sup>21</sup>. Guzti honek izenetan islada handia izango du, Bigarren Errepublikan arte sainduen izen aunitz ipiniz. Azkeneko gertakari hau kasu batzuetan ez du zerikusi handirik izango baina, beste askotan, etenaldi bat suposatuko du. Anai arteko gerra eta gerra osteko beherakada demografikoa dela eta, tokian-tokiko hagio-antroponimiaren adibideak gutxituko dira.

Berrogei eta Berrogeita hamargarren hamarkadetan gorakada izugarri bat somatuko dute izen hauek. 1946. urtean Mariako saindutegietara zihoazten erromeria eta Kongresu Eukaristikoko ugari izan ziren Nafarroan zehar. Guzti hau Iruñean irailaren 15etik 22ra egindako *Santa María la Realaren* koroazioa izan zuen helburu, Nafarroako Ama Birjin aunitzen presentzian egin zelarik. Frankismoaren giro honetan sainduen izenekin bataiatzea normala suertatzen zen. Hirurogeigarren hamarkadan eta ideei berriak sartuko diren einan, moda hauek galduz joango dira. Azken hamarkadetan euskal saindutegiaren antroponimoen moda ezagutuko da, arrazoia euskal kultura barneratzen duten gurasoetan bilatu beharrez; azken fenomeno hau *Irantzu* izenarekin ikertu dugu batez ere.

19. *Libro de Bautizados de la Parroquia de Santa Fe Mártir de la Villa de Caparrosa*, 14 zb., fol. 195.

20. *Libro de Bautizados de Milagro*, 13 zb., fol. 138.

21. Vicente HUICI URMENETA eta laguntzaileak, *Historia Contemporánea de Navarra*, San Sebastián, 1982, 103-104 orr.

## TOKIAN-TOKIKO HAGIO-ANTROPONIMOEN ADIBIDEAK

### Abarzuza (M<sup>a</sup> Irantz):

Abarzuzako dermioan Irantzuko monastegia kokatzen da. 1176. urtean sortua, bertan Irantzuko Ama Birjina gurtu izan zen. Joan den mendeko desamortizazio eta exklausurazioak monastegiaren eta kulturaaren hondamena ekarri zuen. 1942. urtean Nafarroako Foru Aldundiak berriztapen lanak hasi zituen, denbora eskasak monjeak sartuz eta berriro ere Irantzuko Amaren kultoa berreskuratuz<sup>22</sup>.

Irantzuzko izena, beste euskal saildunen izen batzuk bezala (Estibalitz, Leire edo Idoia kasu), hirurogeigarren hamarkadatik aurrera euskal kultura aldarrikatzen zuten familien artean modan jarri izan zen. Nafarroan duen presentzia adierazgarria da, nahiz eta Lizarraldean somatu bere eraginik handiena<sup>23</sup>. Aipagarria da Bizkaian duen garrantzia<sup>24</sup>, Gipuzkoa<sup>25</sup> eta Araban<sup>26</sup> txikiagoa izanez. Euskal Herriatik kanpo agertzen diren adibideak emigrazio kasuak dira gehienetan, dudarik gabe alabari bertako identitate zeinu bat paratzearen<sup>27</sup>.

### Altsasu (M<sup>a</sup> Erkuden, M<sup>a</sup> Aitziber):

Erkuden<sup>28</sup>: 1945, 1949, 1951, 1952, 1954 (2 kasu), 1956, 1961, 1962, 1963 (2), 1964, 1965, 1966, 1969 (2), 1972 (2), 1973 (3), 1974, 1975 (5), 1976 (6), 1977, 1978 (4), 1979 (2), 1980 (6), 1981, 1982 (3), 1983 (2), 1984, 1985 (2), 1987, 1988 (2), 1990 (2), 1991 (4), 1992, 1994 (3).

---

22. José María JIMENO JURÍO, *Irantz*, Navarra. Temas de Cultura Popular, 69 zb., Pamplona, 1970.

23. *Libro de Firmas. Monasterio de Irantz*, 1 zb. Irantzuko monastegitik pasa diren *Irantz*zuk jasotzen dituen liburua, 1997ko irailaren 20ean 267 izen bildurik zeramatzaten. Hurrengo datuak liburua honetatik jaso ditugu. Abarzuza (4 kasu), nahiz eta askoz gehiago izan behar, Irantzuko monastegia herri honetan kokaturik bait dago), Ablitas (2 kasu), Aiegi, Altsasu, Alloz, Arbizu, Arellano, Arre, Atarrabia (2), Barañain (3), Bera, Beriain, Berriozar (2), Biana, Burlata (2), Cárcar, Cascante, Dicastillo, Etxarri Aranzat, Gares (2), Irañeta, Iribas, Iruñea (100), Iturmendi, Labiano, Lekunberri, Lerin (3), Lezaun (2), Lizarra (17), Lodosa, Los Arcos, Mañeru, Mendavia, Miranda de Arga (2), Monteagudo, Mutilloa Gotti, Obanos, Olazti, Oteiza de la Solana, Peralta, Salinas, San Adrián, Tafalla, Uhartte-Iruñea (2), Villatuerta (3), Zizur Nagusia (5), Zubiri.

24. Algorta (4 kasu), Balmaseda, Barakaldo (5), Basauri, Berango, Bermeo (2), Bilbo (35), Elorrio, Erandio, Etxebarri, Galdakao (2), Gatika (2), Gernika (2), Getxo (2), Leioa, Mungia (2), Santurtzi, Sopela (2), Sorraluze, Ugao-Miraballes, Zaldibar, Zeberio, Zornotza. Bederatzi kasuetan *Bizkaia* ipintzen du baina jatorri zehatzik ez du esaten.


25. Azkoitia, Beasain (3), Berastegi, Deba (2), Donostia (9), Eibar, Eskoriatza (2), Hernani, Hondarribia, Lasarte, Lazkao, Ordizia (2), Tolosa (2), Zestoa (2), Zumaia. Hiru kasuetan *Gipuzkoa* ipintzen du baina jatorri zehatzik ez du esaten.

26. Amurrio (2 kasu), Gasteiz (15), Audio (2), Okondo.

27. Aras, Logroño (5 kasu) (Errioxa); Zaragoza (2); Madrid (6); Vigo (Pontevedra); Bartzelona (2), Erdañola del Vallés, Terrassa, Figueres (Catalunya); Valencia; Palma de Mallorca; Huelva; Granada; Aberdeen-Edimburg (Eskozia); Paris; Lima (Perú); Metepec (Mexico). Beste Mexikar bat, Irantz Díaz de Rada Martínez de Morentin orain Iruñera bueltatu da.

28. *Libro de Bautizados de la Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora de la Villa de Alsasua*, 12 zb., fol. 181, 326, 392. *ID.*, 13 zb., fol. 79, 209, 237, 412. *ID.*, 63, 222, 420, 483, 541. *ID.*, 15 zb., fol. 42, 155, 559, 619. *ID.*, 16 zb., fol. 65, 84, 111 itz., 112 itz., 128, 151 itz., 216 itz., 222 itz., 225, 232, 236, 291 itz., 292, 299, 306, 311, 311 itz., 347 itz. *Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora. Alsasua. Libro de Bautismos*, 17 zb., fol. 20, 22, 41, 47, 58, 82, 98 itz., 114, 117, 119, 121, 131 itz. *Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora. Alsasua. Bataio Agirien liburua-Registro de Bautismos*, 18 zb., fol. 14 itz., 68, 72, 74 itz., 99, 102 itz., 152 itz., 172, 185 itz. *ID.*, 19 zb., fol. 92, 245, 314, 332, 227, 298, 119, 134, 301, 316. *ID.*, 20 zb., fol. 24, 29, 38.

## ERKUDEN ALTSASU (1945-1994)



Altsasuko kanpokaldean, Gipuzkoako errepidearen alboan, Erkudengo Ama Birjinaren basiliza dugu. Elkuren eremuko eliza izan zen, XIV. mendeko bigarren laurdenean desagertu zena. XX. mendearen hasieran jatorrizko irudia lapurtua izan zen eta gaurkoa herriko artista batek eginikoa da<sup>29</sup>. Erkuden izenak, Altsasuko populazioa kontutan harturik, neska gutxi eza gutukitu, baina beti ere oso ezaugarri bereziekin. Altsasu, inmigrazio handiko herria, Erkudenen ikusiko du bere berberatasun zeinu bat eta, horrela, bertakoen alabek izango dute euskal saindutegiko izen hau. Argi agertuko da lehen Erkudenean, M<sup>a</sup> Erkuden Antonia Goicoechea Ascorbe, 1945ean bataiatutako Altsasuko betiko familiariko neska.

Aitziber<sup>30</sup>: 1967, 1968, 1970, 1971, 1975, 1977, 1981, 1983, 1989, 1991, 1994, 1995.

Urdiaingo Sarabeko eremuan kokatua, Aitziber go basiliza mitologiaren ingururik dago. Jentiletatik eraikia, erromesek haien emakumeak ilea orrazten ikusten zituzten<sup>31</sup>. Aitziberren irudia gotiko estilokoa da eta Urdiaingoek debozio handia diote. Altsasu, Urdiainekin mugatzen duen herria, debozio horretaz kutsatuko da eta, batez ere euskal izen ederra izateagatik, Irantzu eta Erkudengo kasuetan bezala, euskal kultura sentitzen duten familiek paratuko dute. Lehen Erkudenean gertatzen zen bezala, lehen adibidea Aitziber San Román Goicoechea dugu, Altsasuko betiko familiariko neska. Erkuden eta Aitziber izeneko neskek ez dute haien Ama Birjinaren festaren datarekin zerikusirik izango.

### Arguedas (M<sup>a</sup> del Yugo)<sup>32</sup>:

1771 (IV-12), 1797 (III-1, 26), 1800 (VI-17), 1802 (III-11), 1803 (XII-30), 1804 (III-25), 1810 (X-28), 1811 (III-26, XI-3), 1826 (III-26), 1827 (III-25), 1829 (III-24), 1841 (III-26), 1843 (III-25),


29. José AMILIBIA SALGADO eta Nicolás ARBIZU GABIRONDO, *Altsasu-Alsasua. Crónica histórica de nuestra villa-Gure herriko historiaren kronika*, Altsasu, 1997, 62-63 orr.

30. *Libro de Bautizados de la Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora de la Villa de Alsasua*, 15 zb., fol. 382, 440, 665, 810. *ID.*, 16 zb., fol. 209, 390 itz. *Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora. Alsasua. Bataio Agirien liburu-Registro de Bautismos*, 18 zb., fol. 15 itz., 107 itz. *ID.*, 19 zb., fol. 184, 305. *ID.*, 20 zb., fol. 59, 63.


31. Fernando PÉREZ OLLO, *Ermitas de Navarra*, Pamplona, 1983, 245 orr.

32. *Libro de Bautizados. Arguedas*, 4 zb., fol. 231, 647 itz., 648, 662, 672, 679, 681. *Libro de Bautismos. Arguedas*, 5 zb., fol. 35 itz., 37 itz., 41 itz., 153, 171 itz., 180. *Libro de los Bautizados en Arguedas*, 6 zb., fol. 75, 88 itz., 124 itz. *Libro de Bautizados de la Parroquia de Arguedas*, 7 zb., fol. 2 itz., 16, 30 itz., 36 itz., 127 itz., 148 itz. *Libro de Bautizados de la Parroquia de la Villa de Arguedas*, 8 zb., fol. 13 itz., 33, 40 itz., 83, 141, 177 itz., 203 itz., 230, 243 itz.

MARIA DEL YUGO ARGUEDAS (1800-1899)



MARIA DEL YUGO ARGUEDAS (1900-1984)



1848 (III-25), 1857 (III-26), 1859 (III-25), 1862 (III-26), 1863 (III-25), 1875 (III-29), 1877 (IV-2), 1881 (III-26), 1882 (IX-10), 1883 (IV-2), 1886 (IV-22), 1890 (IX-10), 1893 (X-27), 1896 (III-26), 1898 (IX-7), 1900 (II-18), 1901 (IX-11), 1903 (V-30), 1904 (IV-15), 1906 (II-24, III-6, VIII-22, VIII-24), 1907 (I-10, III-29), 1908 (III-5, V-13), 1910 (III-2), 1912 (III-7), 1913 (III-24), 1915 (V-24, XII-1), 1917 (2, biak VIII-27), 1918 (I-27), 1919 (I-16), 1920 (I-5, V-27), 1921 (IV-3), 1922 (III-24, 29, IX-23), 1923 (II-12, VI-25, XI-24), 1924 (III-24, V-24), 1925 (XII-19), 1927 (V-9, 11), 1929 (III-17), 1930 (VI-11), 1933 (IX-14, 18), 1937 (XI-10), 1938 (IX-3, XI-25), 1943 (V-28), 1945 (V-12), 1947 (VII-9), 1948 (III-31), 1949 (X-13), 1950 (III-30, VI-1), 1951 (VI-21), 1952 (VI-29), 1953 (IV-1), 1954 (IX-27), 1957 (X-8, 9), 1958 (VII-2, IX-16), 1959 (II-10), 1961 (VI-23, IX-12), 1962 (IX-15), 1964 (VIII-5), 1966 (I-1), 1969 (II-16), 1970 (VIII-29), 1976 (V-13), 1978 (IV-29), 1979 (XI-10), 1984 (XII-24).

*Libro de Bautizados de la Parroquia de Arguedas*, 9 zb., fol. 13, 33 itz., 41 itz., 61, 62, 67, 70, 72, 82, 85, 111 itz. *ID.*, 10 zb., fol. 7 itz., 59, 161, 185 itz., 280, 281 itz. *Libro de Bautizados de la Parroquia de San Esteban de la Villa de Arguedas*, 5, 11 zb., fol. 16 itz., 64, 92, 121 itz., 144 itz., 197 itz., 267 itz., 268 itz., 292 itz., 293, 310, 329 itz. *ID.*, 12 zb., fol. 8 itz., 31 itz., 41, 111, 170 itz., 171, 256 itz., 309 itz., 379 itz., 380 itz. *Parroquia de Arguedas. Bautizados*, 13 zb., fol. 131, 153, 158 itz., 429, 572 itz. *ID.*, 14 zb., fol. 46, 75, 133 itz., 148 itz., 155, 188 itz., 228, 252 itz., 290. *Parroquia de Arguedas. Libro de Bautismos*, 15 zb., fol. 164, 165, 199, 207, 230, 380, 390, 445, 540, 611, 762. *Parroquia de San Esteban de Arguedas. Libro de Bautismos*, 16 zb., fol. 15, 241, 295, 334, 489.



Arguedasko Bardenatan kokatua, Maria del Yugo saindutegiari Ebroko Erriberako alboko herriek debozio handia diote<sup>33</sup>. Nahiz eta bere kondaira oso data zehatzan kokatu, bere sorrera ez dugu ezagutzen, XIV. mendean lehen aldiz dokumentaturik agertuz. XVII. mendean bere debozio unerik gorenean gaurko basilika eraikiko da<sup>34</sup>. Antroponimoetan XVIII. mendeko bigarren erdialdean agertzen hasten da, bere debozioa gradu altua hartzen duen momentu batean; horrela bada, 1795ean Nafarroako Bolondresen Hamargarren Batailoien patroia eta abokatua izendatu zuten. XIX. mendean zehar eta XX.aren hasieran ttantaka izango ditugu Yugoak, Lehenengo Errepublikak pasa ondoren gehiago egonez; hauetako izen askok jaiotako egunarekin zerikusi handia daukate. 1906. urtetik hirurogeigarren hamarkadaren hasiera arte unerik gorena ikusiko du, bi jeitsialdi somatuz: Bigarren Errepublika eta gerra osteko lehen urteak, azken hau arrazoi demografikoengatik. Frankismoaren giroan Yugoak mantenduko dira. 1971tik aurrera izenaren moda galduz joango da, jeitsiera bat ikusiz 1984ko azken Yugora arte, larogeiko hamarkadan kasu hori egonez bakarrik. Azkeneko bi hamarkaden basamortua ez dator bat Yugoko Ama Birginari zaion debozioarekin, baina, dagoeneko, izena ez da eufonikoki polita<sup>35</sup>.

### Artaxoa (M<sup>a</sup> Jerusalén)<sup>36</sup>:

1882 (IX-8), 1888 (IX-8), 1890 (IX-8), 1893 (IX-8), 1895 (IX-8), 1899 (IX-20), 1900 (XII-13), 1901 (IX-9), 1905 (IX-8), 1906 (V-30), 1908 (IX-10), 1913 (IX-13), 1914 (VII-20), 1916 (IX-15), 1918 (III-11, V-13, IX-22), 1919 (V-11: bi kasu, IX-15, 26), 1920 (III-13, IX-8, 17), 1922 (V-8, 17), 1923 (III-7, IV-28, V-29), 1925 (IX-5), 1926 (V-8, IX-12, XI-2, 15), 1927 (V-2, XII-9, 27), 1928 (II-14, V-13), 1929 (V-14, VII-22), 1930 (V-5, 11, 27, VIII-29, IX-17, X-14), 1931 (II-28, III-10, IV-16, V-17), 1932 (I-27, II-15, 19), 1934 (IV-7), 1935 (IV-26, VI-18, VII-17, IX-19), 1936 (V-16, VIII-19, XII-3), 1937 (II-22, VI-9, IX-7, XI-13), 1938 (II-22, IX-10, XII-19), 1939 (I-21), 1940 (V-7, VIII-10, 22, X-31), 1942 (IV-34), 1944 (II-25, V-15, 19), 1945 (V-11, 19, VII-21, IX-6, 7, 9, 22, 23), 1946 (I-15, IV-26, VI-3, VII-8, 24, IX-8), 1947 (II-7, V-12, X-29, XII-19), 1948 (II-1, 23, IV-22, IX-2, X-25, XII-16, 23, 29), 1949 (I-7, IV-5, V-24), 1950 (IV-21, 26, VI-14, VIII-21, XI-5, XII-10), 1951 (I-11, 30, IV-10, 27, 28, VIII-22, XII-12), 1952 (VI-9), 1953 (I-11, V-26, VI-8, IX-10), 1954 (III-17, IV-8, V-30, XII-2), 1955 (II-19, IV-14, VII-3, VIII-22, IX-8, 12), 1956 (VI-2, 21, VIII-19, XI-15), 1957


33. Valtierra, Cadreira, Milagro, Villafranca, Murillo, Carcastillo, Marcilla, Mélida eta Tuterá.

34. J.M. JIMENO JURÍO, *Ermitas. Merindad de Tudela*, Navarra. Temas de Cultura Popular, 209 zb., Pamplona, 1974, 12-13 orr.

35. Sekulako debozioa ikusi ahal izan zen adibidez 1989. urtean IX. mendeurrenarekin. Ikusi Juan Antonio IN-DURÁIN, *La Virgen del Yugo. Celebración del Noveno Centenario*, Arguedas, 1989.

36. *Libro de Bautizados de las parroquias unidas de San Saturnino y San Pedro de la Villa de Artajona*, 11 zb., fol. 176 itz. *ID.*, 12 zb., fol. 57, 67, 104, 177, 222. *ID.*, 13 zb., fol. 38 itz., 61, 77, 150 itz., 167, 211 itz. *Libro de Bautizados de la parroquia de San Pedro de esta Villa de Artajona*, 15 zb., fol. 80 itz., 116 itz., 199 itz., 266, 273 itz. *Libro de Bautizados de las parroquias unidas de San Saturnino y San Pedro de esta Villa de Artajona*, 16 zb., fol. 7 itz., 34, 37 itz., 45 itz., 47 itz., 72, 91 itz., 93, 159, 160 itz., 188 itz., 196, 200, 268 itz. *Libro de Bautizados. Artajona*, 17 zb., fol. 5 itz., 16 itz., 13, 15, 26 itz., 36, 37, 41, 48, 65, 67, 83 itz., 85, 90, 91, 92, 100, 100 itz., 102, 103, 119, 119 itz., 120 itz., 183 itz., 207, 211 itz., 212 itz., 223, 235 itz., 242, 247, 251, 258, 264, 265, 271 itz., 285, 291, 292, 318 itz., 328, 329 itz., 332, 364 itz., 405, 409, 410 itz., 435, 435 itz., 438, 440 itz., 441 itz., 442, 443 itz., 444 itz., 451 itz., 459 itz., 461, 463, 465, 467. *ID.*, 18 zb., fol. 2 itz., 6 itz., 16, 18, 21, 23, 25 itz., 36 itz., 38, 40, 44 itz., 45 itz., 47, 48 itz., 53 itz., 68 itz., 84, 84 itz., 87 itz., 93, 95 itz., 97 itz., 99, 100, 105 itz., 107, 107 itz., 115, 122 itz., 134 itz., 155, 162 itz., 163 itz., 168, 180, 182 itz., 187, 200 itz., 207, 210 itz., 214 itz., 216, 218, 218 itz., 232, 233 itz., 237, 240 itz., 246, 265 itz., 267 itz., 280 itz., 288 itz., 290 itz., 293, 298, 306 itz., 316 itz., 317 itz., 320, 333 itz., 344, 344 itz., 345, 363, 368 itz., 372, 372 itz., 374, 375 itz., 377 itz., 403, 426 itz. *ID.*, 19 zb., fol. 26 itz., 37, 47, 100 itz., 151, 158 itz., 161, 167, 175, 176 itz., 189, 197, 205, 223, 316 itz., 399, 406 itz., 527.

MARIAJERUSALEN ARTAXOA (1882-1989)



(II-7, XI-6, 27), 1958 (V-16, VIII-3, IX-9, XI-1), 1959 (II-20, VI-8, XI-27, XII-22), 1960 (II-28, IX-2), 1961 (I-25: bi kasu, 29), 1962 (I-27, VI-28, VIII-11, 31, IX-9, X-26, XI-24), 1964 (IV-12), 1965 (II-13, XII-22), 1966 (IV-15, VII-3), 1968 (I-21), 1969 (XI-8), 1970 (III-17, V-31, VII-26, XI-29, XII-27), 1971 (VI-27, IX-26), 1972 (I-30, XI-26), 1977 (VII-31), 1982 (III-25, V-30), 1989 (I-7).

Jerusalengo Amaren basiliza Artaxoaren sarreran dago, Iruñeko errepedearen ondoan. XII. mendetik gaurko lekuan Andra Mariari eskeinitako eliza zegoen eta, 1709-1714. urteetan zehar gaur egungo Jerusalemgo ermita eraiki zen. Bere irudia XIII. mendekoa da eta inguruan duen kondaira XV. mendetik aurrera sortuz joan izan zen. Aro modernoan zehar imaginazio barroko batekin Jerusalemgo kondaira biribildurik, herria gero eta mirari eta agertaldi gehiago ezagutuko zituen<sup>37</sup>.

Izenei dagokionez, XIX. mendearen azken laurdenean kokatu behar da fenomeno, lehen Jerusalem 1882. urtekoa izanez. XIX. mendearen erlijio giroan inskribatu daiteke Artaxoaren Jerusalemekiko debozioaren une gorenariko bat, 1899. urtean, VIII. mendeurrenaren festekin. 1918. urtetik eta Primo de Riverako diktaduran zehar Jerusalem izena lorealdi orokor bat izango du, Bigarren Errepublikarekin jeitsiera txiki bat izanez. Gerra ostean eta Frankismoaren giroarekin, Jerusalemgo izena gorakada izugarria ezagutuko du, 1962. urtera arte. Hemendik aurrera, eta 1970. urtea salbuespena izanez, jeitsialdi orokor bat egongo da, azken hamarkadetan baztertuz. Orokorrean jaiotzaren data ez du izenarekin zerikusi handirik baina, kasu askotan, irailan jaiotakoen antroponimoaren arrazoia horretan datza.

**Barasoain (M<sup>a</sup> de Egipto)<sup>38</sup>:**

1946 (XI, 24), 1955 (XII-4), 1963 (XI-19), 1966 (XI-5), 1975 (XI-5).

Orba ibarreko Barasoainen Egiptoko Amaren debozioa Juan de Jesús de San Joaquín karmelitagatik ekarria 1640. urtean hasi zen gutxi gora behera. Aurreran zehar bere mirariak

37. J.M. JIMENO JURÍO, "Historia y leyenda en torno a la Virgen de Jerusalén de Artaxoa", *Príncipe de Viana*, XX-VII, 102-103 (1966), 65-108 orr.

38. *Libro de Bautizados. Parroquia de Barásain*, 7 zb., fol. 268 itz. *Libro de Bautizados. Parroquia de Barásain*, 7 zb., fol. 39, 153, 195, 251.

debozio handiaren merezimendua egingo zioten<sup>39</sup>. Barasoain, nahiz eta herri txikia izan, ez du bere antroponimoen artean Egipto asko sartuko eta, daudenak, beti Frankismoaren garaiko giro erlijiosoan inskribatu behar ditugu. Kasu batean ezik, festaren datarekin (azaroaren erdialdeko igandea) erlaziozuzen daude guztiak.

#### Biana (M<sup>a</sup> Cuevas)<sup>40</sup>:


1948 (XI-12), 1949 (V-6), 1955 (IX-7), 1960 (II-1), 1964 (I-14), 1968 (IV-28, X-31).

Bianako *Las Cañaseko* lakuan, Errioxarekin ia mugatan dagoen baseliza kokatzen da. 1219an dokumentaturik daukagu eta XIV. mendetik erromesen gidetan agertzen zaigu, nahiz eta jadanik 1140. urteko Aymeric Picauden gidan *Cuevas* agertu. Bere irudia XIV. mendekoa da. Bianaren sorrerarekin (1219) Cuevaseko herriaren hondamena etorriko da, bakarrik Bianatarrek Cuevaseko Amari dioten debozio handia geldituz. Cuevasko Kofradiak sainduaren kultua aro modernoan zehar gaur egun arte era handi batean suspertuko du. Bianako populazioa kontutan hartuz, antroponimoa nesketan ez da oso arrunta izango eta beti Frankismoaren garaiko giro erlijiosoan inskribatu behar dugu. 1964koa Bianan jaiotako eta izena gustoko izan zuten Terueleko ibiltari batzuen alaba izan zen. Hagio-antroponimoa ez dator bat festa egunarekin.

#### Caparroso (M<sup>a</sup> del Soto)<sup>41</sup>:

1930 (III-8, VII-1), 1946 (IV-20, VI-28, IX-23), 1947 (VIII-1), 1961 (XI-30), 1962 (VI-30, VII-28), 1963 (I-7, IV-1), 1975 (I-15, X-19).

MARIADEL SOTO CAPARROSO (1930-1975)



39. Jesús ARRAIZA, *Santa María en Navarra. Devoción, leyenda, historia*, Pamplona, 1990, 82-84 orr.

40. Datu hauek bilduak izan dira jadanik: Félix CARIÑANOS SAN MILLÁN (Koord.), *Santa María de Cuevas. En el Camino de Santiago*, Logroño, 1991, 220-223 orr.

41. *Libro de Bautizados de la Parroquia de Santa Fe de Caparroso*, 13 zb., fol. 102 itz., 144, 427. *Libro de Bautizados de la Parroquia de Santa Fe Mártir de la Villa de Caparroso*, 14 zb., fol. 61 itz., 70, 75 itz., 394. *Partidas de Bautismo. Parroquia de Santa Fe Mártir. Caparroso*, 15 zb., fol. 55, 69 itz., 71, 80, 87, 318 itz., 329.

Caparrosoko kanpokaldean, Aragoi eta Zidakos ibaien ondoan, bertakoen debozio handia jasotzen duen Sotoko Amaren basiliza dago. 1739. urtean eraikita, lehendik Aragoi ibaiak eramandako beste eliza bat zegoen. Sotoko Ama Birjinaren irudia XVII. mendekoa da<sup>42</sup>. Hagoi-antroponomoei dagokienez, nahiz eta lehen izena 1930ean paratu, ez da 1946. urterarte modan jarriko, Frankismoaren giroan. Izena ez dator bat festa egunarekin.

### **Labiano (Felicia)<sup>43</sup>:**

1732 (VI-7), 1752 (V-15), 1755 (VII-22), 1759 (VIII-17), 1775 (XI-8)<sup>44</sup>, 1777 (V-13), 1814 (VI-6), 1819 (IX-10), 1829 (XI-2)<sup>45</sup>, 1830 (VI-17), 1843 (X-11), 1867 (XII-9)<sup>46</sup>, 1909 (IV-4), 1928 (IV-26), 1943 (II-22), 1961 (II-9).

Aranguren ibarraren Labianoko herri txikiaren kanpokaldean San Pablaren basilizaren barnean dagoen Santa Felicia gurtzen da. Bere historia hagiografikoki Obanos herriarekin parekatu da. Eraikitza 1753. urtekoa da, baina lehendik beste erromaniko estiloko bat zegoen. Felicia eta Gillermoren kondaira erdi aroko azken mendeetan kokatu daiteke, XVI. mendean debozioa sendotuz. Mende horretatik aurrera saindutegia serorengatik zainduta egongo da, hauen unerik gorenena XVIII. mendea izanez, baina 1782an desagertuz. Gure mendean Feliciari sekulako debozioa izango zaio, adibidez, 1943 eta 1948an lehorrengatik errogatibak garrantzitsuak eginez. Erromeriak Iruñetik eta alboko ibarretatik ateratzen ziren. 1971an, hauek gutxituz zihoazenez, guztiak erromeria orokor batean batu ziren, Aranguren ibarreko soilik aparte geldituz<sup>47</sup>.

Antroponomoei dagokienez Feliciaren debozioa ez dator bat bere izena daramatzaten neskekin. Lehen Felicia 1732. urtekoa da, hala ere, 1777. urtean M<sup>a</sup> Felicia Dominica Nagorearen amabitxia zenaren Felicia de López dokumentaturik agertzen da. Azken izen hau ez da bigarren liburuan agertzen. Lehenengo liburua galdurik dago, beraz, Feliciaren izena neskei ipintzearen modaren hasiera ezin dugu jakin; hala ere, Obanoseko fenomenoarekin bat egingo zuela pentsatu ahal dezakegu. Bitxikeria bezala M<sup>a</sup> Felicia Dominicaren aita Obanosekoa zela esan beharra dago. Maiatzan eta ekainan jaiotakoak salbu, Feliciako izen hauek ez datozte bat orokorrean Corpus Christi eta Trinitatearen inguruan mugitzen diren Feliciako festen egunekin. Azkeneko mendearen hagio-antroponimo eskasak ez datozte bat sailduari izan zaion debozio handiarekin.

### **Obanos (Felicia, Guillermo, M<sup>a</sup> Arnotegi)<sup>48</sup>:**

Felicia: 1624 (VI-28), 1626 (XI-19), 1657 (XI-19), 1721 (VI-6), 1722 (III-29), 1724 (V-21), 1728 (IX-8), 1734 (I-16), 1735 (VI-9), 1742 (VI-16), 1764 (II-12), 1775 (XII-20), 1776 (IV-26),

42. Jesús ARRAIZA, *Santa María en Navarra*, op. cit., 90-91 orr.

43. *Libro de Bautizados y Confirmados de Labiano*, 2 zb., fol. 5 itz., 24 itz., 28, 34, 53, 55 itz., 98 itz., 103 itz., 114 itz., 115, 137, 190 itz. *Libro de Bautizados de la Parroquia de Labiano*, 3 zb., fol. 85. ID., 4 zb., fol. 72, 97 itz., 133 itzulia.

44. Felicia Theodora de Garayoren amabitxia Labianoko Felicia de Redín izan zen, 1759an jaiotakoa.

45. Felicia Santos Salinaseko amabitxia Taxoarreko Felicia Salinas izan zen. Amaren aldeko aitona gainera Obanosekoa zen.

46. Felicia Leocadia Palaciosen amabitxia Labianoko M<sup>a</sup> Felicia Aranguren izan zen, 1819an jaiotakoa.

47. Jesús EQUIZA, *Labiano. Santuario de San Pablo y Santa Felicia. Historia y actualidad*, Madrid, 1994.

48. *Bautizados*, 2 zb., fol. 15 itz., 54, 58, 61, 81 itz. *Bautizados, Confirmados, Casados y Difuntos*, 3 zb., fol. 7 itz., 11 itz., 21, 28, 29, 45, 49, 55 itz., 56. *Bautizados, Casados y Difuntos*, 4 zb., fol. 1 itz., 11, 26, 30 itz., 35, 35 itz., 46 itz., 49, 51 itz., 53 itz., 59, 62, 68 itz., 71 itz., 75 itz., 79, 80, 82, 85 itz., 86, 90 itz., 93 itz., 95, 96 itz., 99 itz., 100, 106 itz.,

1783 (V-18), 1784 (V-20), 1795 (V-18), 1802 (XI-20), 1814 (XII-18), 1818 (IX-7), 1825 (X-13), 1865 (XI-21).

Guillermo: 1608 (IV-10), 1630 (XI-4), 1639 (I-27), 1645 (IV-22), 1647 (VIII-27), 1653 (IV-16), 1658 (IV-28), 1670 (IV-1), 1679 (IX-8), 1680 (VII-18), 1689 (IV-27), 1696 (IV-26), 1699 (IV-23), 1710 (III-31, IV-4, IX-4), 1718 (IV-26), 1720 (IV-4), 1725 (VIII-12), 1737 (IV-28), 1743 (IV-18), 1744 (IV-8, 9), 1746 (IV-11, V-19), 1749 (II-13, IV-10), 1750 (III-28), 1754 (I-5, III-25, IV-6), 1755 (IX-25), 1759 (II-14), 1764 (I-11, IX-16), 1767 (XI-16), 1772 (I-19), 1778 (I-29), 1779 (X-19), 1781 (III-4), 1784 (X-13), 1791 (III-5), 1792 (VI-17), 1795 (I-10), 1802 (XI-20), 1827 (VIII-25, XII-8), 1828 (X-14), 1832 (IV-27), 1834 (IV-3), 1845 (VI-25), 1884 (I-10), 1886 (V-22), 1891 (IV-6), 1904 (VI-18), 1915 (X-18), 1919 (II-10), 1936 (IV-6), 1938 (VI-25), 1939 (V-14), 1946 (II-10), 1954 (IV-22), 1974 (VIII-20), 1985 (I-7), 1989 (III-20).

Guillermo: 1672 (IX-22), 1696 (IV-26), 1709 (IV-7), 1730 (IV-11), 1732 (IV-16), 1734 (VIII-29), 1737 (VI-30), 1740 (VI-27), 1752 (I-11), 1753 (IV-30), 1756 (V-5), 1766 (IV-4), 1767 (XII-28), 1769 (IV-15), 1772 (XI-15), 1774 (IV-7), 1777 (III-11, IV-16), 1780 (I-20), 1784 (III-22), 1796 (VIII-18), 1798 (IV-13, bi kasu), 1830 (I-10), 1854 (VI-13), 1866 (IV-5), 1907 (VI-26), 1932 (V-13), 1971 (VII-17).

M<sup>a</sup> Arnotegi: 1969 (VII-20), 1982 (VII-16).

Ikusi dugunez, Obanoseko hagiografia Labianokoarekin parekaturik dago. Kondaira dienez, Gillen edo Guillermo, bere arreba Felicia hil ondoren, penitentzia gisa Santiagora joan zen; itzultzerakoan aurreran zehar Arnotegiko saindutegian gelditu zelarik. Kondaira hau 1962. urtetik noizean behin Obanosen aurkezten da. Beste aldetik, Gillermoren burutik Pazko festan ura eta ardoa pasatzearen usadioa ezaguna da. Erlikia hau Arnotegiko baselizan gordetzen zen eta, horregatik, Arnotegi orde, Obanosen popularki *San Gillermoko* ermita deitzen zitzaion<sup>49</sup>. Azken arrazoi honengatik Arnotegi izenaren kopuru eskasa azaldu daiteke. Guillermo/a eta Felicia hagio-antroponimoak bestalde, XVII. mendean hasten dira, historian zehar une adierazgarriak ez ikusiz. Feliciaren izena joan den mendean galtzen bada, bere anaiarena nahiz eta ez oso indar handiarekin mantenduko da.

### Milagro (M<sup>a</sup> Patrocinio)<sup>50</sup>:


1856 (III-14), 1859 (XI-14), 1861 (XI-9), 1864 (XI-13), 1877 (XI-11, 13), 1882 (XI-13), 1885

107, 110 itz., 115, 119, 121, 123 itz., 125, 128, 136. *Bautizados, Casados, Velados y Difuntos*, 5 zb., fol. 3, 3 itz., 6 itz., 23, 25, 28, 29, 35 itz., 39, 49, 58, 61 itz., 66, 70, 79, 81, 83 itz., 91, 94, 95, 96, 123, 129, 140, 141 itz., 146, 235. *Libro de Bautizados de la Parroquia de San Juan Bautista de esta villa de Ovanos*, 6 zb., fol. 10, 28 itz., 93, 133 itz., 216 itz., 220, 225 itz., 227 itz., 236 itz., 253 itz., 265 itz. *Indice alfabético de los bautizados de la Iglesia Parroquial de San Juan Bautista de la Villa de Obanos*, fol. 25, 32, 48, 50, 51, 56, 69, 80, 84, 95, 104, 116, 119, 114, 124, 129, 133, 134, 135, 137, 140, 149, 150. 7-10 zb. bataio liburuen datuak bertan sarturik daude.

49. Santos BEGUIRISTÁIN, *El Misterio de Obanos*, Navarra. Temas de Cultura Popular, 33 zb., Pamplona, 1968.

50. *Libro de Bautizados en esta Yglesia Parroquial de Nuestra Señora de los Abades de la Villa de Milagro*, 5 zb., fol. 91, 132 itz., 196 itz., 198. *Libro de Bautizados de la Parroquia de Nuestra Señora de los Abades de la Villa de Milagro*, 6 zb., fol. 128 itz., 129. *ID.*, 7 zb., fol. 62 itz., 110, 163, 169, 185 itz., 186. *ID.*, 8 zb., fol. 13 itz., 14, 16, 28 itz., 29 itz., 49, 49 itz., 90 itz., 94, 102, 134 itz., 138 itz., 166 itz., 174 itz., 185 itz. *ID.*, 9 zb., fol. 9 itz., 19, 19 itz., 22 itz., 26, 61, 62, 63 itz., 64, 64 itz., 97, 102, 123, 124 itz., 153, 163, 164, 168 itz., 175, 180 itz., 184, 193 itz., 195, 196 itz., 216 itz., 217. *Libro de Bautizados de Milagro*, 10 zb., fol. 2, 33, 45, 52, 72, 74, 82, 96, 97, 116, 118, 119, 129, 129 itz., 135, 170, 179, 192, 211 itz., 212 itz., 232, 257, 269 itz. *ID.*, 11 zb., fol. 32, 33, 34, 59, 138, 191, 191 itz., 212, 241, 292, 302, 327. *ID.*, 12 zb., fol. 117, 136, 180, 245. *ID.*, 13 zb., fol. 34, 70, 89, 138, 140, 150, 182, 219, 234, 254. *ID.*, 14 zb., fol. 2, 125 itz. *ID.*, 15 zb., fol. 10 itz., 28 itz., 145, 157 itz., 189. *ID.*, 16 zb., fol. 4, 25 itz., 72, 102, 121, 123 itz., 129 itz., 198 itz. *ID.*, 17 zb., fol. 14, 31 itz., 57, 65, 112 itz., 148 itz., 201. *ID.*, 18 zb., fol. 5 itz., 59, 93, 98.

MARIA PATROCINIO MILAGRO (1856-1979)



(IX-8), 1889 (V-19, XI-5), 1890 (XI-4, 11, 13), 1891 (XII-3), 1892 (I-2, XI-13, 20), 1893 (XI-5: amabitxiaren izen bera, XI-11), 1896 (IV-28, VI-27, XI-8), 1899 (II-14, IV-24), 1900 (XI-11), 1901 (IV-30, XI-17, 20), 1902 (IV-20, XI-3: bi kasu, XII-9), 1903 (III-8), 1904 (XI-12, 13, 21, 23: bi kasu), 1906 (V-11, VIII-10), 1907 (VIII-12, IX-10), 1908 (XI-2), 1909 (IV-22, VI-1, VIII-24, XI-15), 1910 (II-25, V-14, X-20: amonaren izen bera, XI-4, 18), 1911 (XI-7, 13), 1912 (I-8, XI-19), 1913 (II-15, III-5, VIII-7, 14, XI-1), 1914 (II-11, 13, VII-20: amonaren izen bera, VIII-14, 22, XI-12, XII-4), 1915 (I-5, XI-11), 1916 (I-4, IV-25, XI-5, 22), 1917 (III-20, XI-15, 24: amabitxiaren izen bera), 1918 (III-4: amabitxiaren izen bera, XI-11, 17, 18), 1919 (VI-5), 1920 (XI-14), 1921 (XI-10, 13), 1922 (IV-18, XI-14), 1923 (XII-18), 1924 (II-10, VIII-20), 1926 (XI-14), 1927 (II-22), 1928 (I-25: amabitxiaren izen bera), 1929 (III-20<sup>51</sup>), 1930 (XI-7), 1931 (VI-19, XI-15), 1932 (XI-13, 19), 1933 (I-25, XI-11), 1934 (X-23), 1935 (VI-10, XI-7), 1936 (VII-25), 1940 (XI-17), 1943 (III-26, XI-21), 1948 (III-6, XI-14), 1949 (X-2: amabitxia-amonaren izen bera), 1950 (V-1: amabitxia-amonaren izen bera), 1951 (II-28), 1952 (XI-5), 1953 (XI-12), 1954 (VIII-6: amabitxia-amonaren izen bera, VIII-25, XI-14), 1957 (I-20, VI-16), 1958 (II-9), 1959 (I-3, III-20: amonaren izen bera), 1960 (XI-13), 1961 (XI-11: amabitxiaren izen bera), 1967 (XI-11), 1974 (III-31), 1978 (VIII-17: amonaren izen bera), 1979 (V-19).

XVII. mendetik bere basilika *Nuestra Señora de la Villa Vieja* izenarekin ezagutzen da, 1703. urtean eraikitzeaz bukatu zelarik. Nahiz eta gaur egun Milagroren barnean egon, mende hau arte kanpokaldean kokatzen zen. XVIII. mendean zehar Patrocinioko izen berria jaso zuen, honen debozio popularra bere interesio eta mirariengatik handia izanez. Debozioa jarraitu zuen frantsesearen ondoren basilika berriztatu behar izan zenean (1808-1809). Herriak dion maitasuna oso handia da eta, hamarkada batzuk arte, txerrikume bat herriko kaleetatik aske uzten zuten loditu zezan gero zozketatzeko; lorturiko dirua Ama Birjinaren kultoarentzat zen. Beste aldetik, hildakoak Ama Birjinari azkeneko agurra emateko, kanpusantura eraman baino lehen Patrocinioren sainduteziaz pasa behar ziren. 1946. urtean Patrocinioko irudia eta 1964garrenean baseliza berriztatu zuten<sup>52</sup>.

51. Bere amabitxiak izen bera dauka, baina Palentziako Villadako da.

52. Félix Manuel MARTÍNEZ SAN CELEDONIO, *Historia documentada de la Villa de Milagro*, Milagro, 1983, 223-232 orr.

Patrocinio, emakumeen izena bezala, XVIII. mendetik eta Milagroekin zerikusirik izan gabe daukaten beste leku batzuetan agertzen da. Milagron lehen Patrocinioren hagio-antroponimoa 1854koa da; hala ere ez du arrakasta handirik izango, oso izen gutxi ikusiz XIX. mendean zehar, kasu gehienetan bere festaren datarekin zerikusia dutelarik. Patrocinio izenaren gorakada mende honen hasieran izango da. Beste kasu batzuetan ikusi dugun bezala, Nafarroa osoak bizitzen zuen giro erlijiosoagatik, izen horrekin bataiatuko dituzte, unerik gorenena 1914. urtea izanez. Patrocinio izenak Primo de Riverako diktaduratik gerra osteko lehen urteetaraino beheraldi txiki eta mantendu bat izango du, berrogei-berrogeita hamargarren hamarkadetan goraldi xume bat ezagutuz. Azkeneko hiru hamarkadetan izenaren moda galduz joango da.


Jaiotze asko Patrocinioren datarekin bat datoz. Kasu askotan, XX. mendearen lehen erdialdean jaiotzen diren azaroko Patrocinioak, Milagroko gurasoak dituzte eta, bestelako hila-betetan jaiotzen direnak, kanpokaldeko gurasoak ordea. Honek beharbada Milagrokoek dataren tradizioari dioten garrantzia ikustarazten du, kanpokaldetik etorri direnek ordea, herrian integratzeagatik jarriko ziotelarik.

### Miranda de Arga (M<sup>a</sup> del Castillo)<sup>53</sup>:

1914 (X-20), 1922 (III-10), 1924 (VII-4), 1933 (IV-7), 1940 (IX-16, XII-17), 1941 (I-30, III-10), 1944 (V-26), 1945 (VII-29, V-30), 1948 (III-3), 1953 (III-9), 1954 (IX-28), 1955 (IX-10).

Mirandako gazteluaren pean kokaturik eta erdi aroan sorrera duen M<sup>a</sup> del Castilloko basiliza, 1790. urtean eroria egongo da. Harrezkerotzik eta bi mendeetan zehar berreraiketa lanak egin izan dira<sup>54</sup>. Irudia erromanikoa da eta Mirandakoek debozio handia diote. Izenak ez du arrakasta handirik izango Mirandan. Nahiz eta 1914tik agertu, ez zaio Frankismoaren garaia arte kasu nabarmenik egingo. Hagio-antroponimoa ez dator bat orokorrean festa egunarekin.

MARIADEL CASTILLO MIRANDA DE ARGA (1914-1955)



53. *Libro de Bautizados. Parroquia de Miranda de Arga*, 13 zb., fol. 85 itz., 272 itz. ID., 14 zb., fol. 34, 310 itz., 264, 369. ID., 15 zb., fol. 26 itz., 43, 46 itz., 89, 173, 200 itz., 215 itzulia.

54. Damián JANÁRIZ, *Historia y Novena de la Virgen del Castillo, patrona de Miranda*, Valladolid, 1947.

Izen hau amankomuna da leku askotan, debozio popularrak hagio-antropónimoetan ere bihurtzen duelarik. Horrela, Altsasuko M<sup>a</sup> del Castillo Suárez García, M<sup>a</sup> del Castillo Garciaren alabak, amaren izena jaso zuen, azken hau Palentziako Cervera del Pisuergakoa zelarik<sup>55</sup>. Herri honetan Santa María del Castilloko eliza kokatzen da.

## AZKENEKO MODAK

Alde batetik azkeneko hamarkadetan modak direla eta, tokian-tokiko sainduen izenak alde batera utzi izan dira. Beste aldetik, gerra ondoren euskal kutzua zeukaten izen debekatuak hirurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera indarrez sartzen dira, bai abertzaleen artean, bai bestelako jendearen artean, azken hauei izen ederrak iruditzeagatik. Kasu honetan ikusgarria suertatzen da Erribera aldeko euskal izenen kopurua. Azken hamarkadetan Ainara, Ainhoa, Alazne, Amaia, Andrea, Arantxa, Edurne, Idoia, Irantzu, Itsaso, Itziar, Izaskun, Jaione, Lorea, Maialen, Maidier, Nagore, Naiara, Naroa, Nerea, Oihana, Olatz edo Saioa bezalako izenak emakumezkoen artean arruntak izango ditugu.

Beste izen batzuk kanpotik etorritako modetan oinarrituko dira, Leticia, Noelia, Sonia edo Sandra bezala. Azken hamarkadan, eta era handi batean Latinoamerikatik etorritako telesailen eragipenagatik Yesica/Jesica/Jessica, Yenifer/Jenifer, Omayra, Kissi, Saray, Sheila, Tania eta antzekoak aurkitu ahalko ditugu. Idazterako orduan parroko eta idazkariak arazo larriekin aurkitzen dira izen batzuk grafia ezberdinekin agertzen direnean, kasu batzuetan izen berriak asmatzera ailegatu izanez<sup>56</sup>. Beste batzuk *prentsa arroxaren* eragina izango dute, Tamara<sup>57</sup> edo Deshirée<sup>58</sup> bezala. Azkenik, Itun Zaharreko izen ahaztuak berriro berreskuratuko dira<sup>59</sup>, baina ez kristautasun sentimendu batengatik, exotiko kutsua daukatelako baizik: Judith, Noemi edo Jezabel adibide arruntak ditugu.

---

55. *Libro de Bautizados de la Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora de la Villa de Alsasua*, 16 zb., fol. 306 itzulia.

56. *Dayanaren* adibidea adierazgarria da. *Dayana* gaztelaniako grafiarekin ingelerako *Dianaren* transkripzio literala da, beraz, izen honetarako grafia berri bat asmatu dute. *Parroquia de La Asunción de Nuestra Señora. Alsasua. Bataio Agirien liburua-Registro de Bautismos*, 19 zb., fol. 279. Fenomeno honi buruz eta Alfonso Irigoieni jarraituz, egin beharreko lehen gauza jatorrizko hizkuntzan izena nola erabiltzen den finkatzea litzateke, transliterazio zehatza eginik eta gero, euskaraz (edo erdaraz) inzkribatzerakoan nola eman ikusi, jatorrizko ortografia ahal denik eta gehien errespetatuz: *Pertsona-izenak euskaraz nola eman*, op. cit., 9-13 orr.

57. Isabel Preysler *prentsa arroxako erregina* eta Griñongo Markesaren alaba.

58. Obanoseko neska bati 1993eko urriaren 30ean izen hau paratu zioten (*Libro de Bautismos*, 11 zb.). Garai honetan Alcañerrekoko kasua pil-pilean zegoen, telebistako *reality show* guztietan agertzen zelarik, *Desirée* (María Deseada) *Hernández Folch* neska bortxatu eta asesinatua izena ezaguna egin zen.

59. Cfr. María Luisa HITZMANN PÉREZ, *Nombres bíblicos en el santoral católico*, Barcelona, 1982.